

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

119/2026 Foru Agindua, martxoaren 2koa. Aldatzea otsailaren 2ko 55/2026 Foru Agindua, zeinaren bidez ebazten baita Bide Azpiegituren Zuzendaritzako Errepide Zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1029.001) izendapen askez betetzeko deialdia

Irailaren 30eko 416/2025 Foru Aginduaren bidez, deialdia egin zen Bide Azpiegituren Zuzendaritzako Errepide Zerbitzuaren buruaren lanpostua (1029.001 kodea) izendapen askez betetzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, abenduaren 5eko 521/2025 Foru Aginduaren bidez izendatutako organo teknikoak lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari helarazi zizkion aurkeztutako hautagaitzen artean lanpostua betetzeko egokitasuna eta gaitasun profesionala egiaztatu zuten biak.

Ondoren, 2025eko abenduaren 22an, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak, espedientean jasota dagoen Bide Azpiegituren Zuzendaritzaren txosten arrazoituan, Ana Martínez de Antoñana Quintana andrea proposatu zuen Errepide Zerbitzuaren buruaren lanpostua betetzeko.

Azkenik, otsailaren 2ko 55/2026 Foru Agindu bidez, Ana Martínez de Antoñana Quintana andrea Bide Azpiegituren Zuzendaritzako Errepide Zerbitzuaren buru (kodea: 1029.001) izendatu zen, 2026ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Martxoaren 1a baliogabea denez, 55/2026 Foru Aginduaren ondorio data otsailaren 2ra aldatu behar da.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Bide Azpiegituren Zuzendaritzako Errepide Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1029.001) izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duen otsailaren 2ko 55/2026 Foru Agindua, honela:

Hau dioen lekuan:

Bigarrena. Foru agindu honek 2026ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hau esan behar du:

Bigarrena. Foru agindu honek 2026ko martxoaren 2tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakioke lehen diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-

dearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 112.1, 121 eta 122.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.
Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 2a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR